

FUNTSEZKO JARDUERAK

Atal honetan gure proiektua aurrera eramateko egin beharko ditugun funtsezko jarduerak definituko ditugu, diseinua, publizitatea, diru kontaktak, aplikazio beraren funtzionamendua eta eguneraketa, eta bezeroekin komunikazioa nork eramango duen zehaztuz.

Funtsezko baliabideak atalean esan dugun bezala, gutako bakoitzak baliabide intelektualak ditu, eta hauek aprobetxatuz taldekide bakoitzak gustura eta erraz egin dezakeen lan bat aukeratu du:



Funtzionamenduaz eta aplikazioaren egunaketetaz Aiur arduratuko da, akatsak aurkitzen trebetasun handia duelako, horrela gure app-ak ez dituelako hutsik izango, eta eguneraketarik gabe ezingo dugulako bezeroek gure zerbitzuarekiko duten interesa mantendu.

Publizitateari helduz, Ferdaws-ek erabakiko du nola iragarriko dugun gure aplikazioa, iragarkien diseinua, zenbat iragarki erabiliko ditugun hilabetero, eta zer sare sozialetan argitaratuko ditugun gehienak esango du. Horrez gain, ere berak erabakiko du aplikazioaren diseinua.

App hau aurrera eramatean hainbat gastu eta irabazi egongo dira prozesu guztian, eta hauek ondo antolatzeko Martin arduratuko da kontaketa guztiak eguneratuta eramateaz, eta gure irabazi eta gastuen kalkuluak egingo ditu.

Azkenik, gure bezeroen beharrak Irunek identifikatuko ditu, eta hauei erantzuten saiatuko da, hau da, normala denez, beti egongo dira hobetzeko gauzak, horregatik, gure bezeroak edozein arazoz abisatuz gero honi konponbidea ateratzea izango da bere helburua, guretzako garrantzitsua delako gure erabiltzaileak gustura egotea ematen diegun zerbitzuarekin.